

Lurra Lantzeko Matxuluko Teknika Tradizionalak



Lurra lantzeko moduak:

Matxulu eta inguruetako klima dela eta, lurra martxo eta urria artean lantzen dute. Martxo baino lehenago eta urritik aurrera hotz handiegia egiten du, eta landareak ez dira hazten. Neguan lurra izozturik egoten da, eta ez dago ezer landatzerik. Hori dela eta, urteroko uzta diogunean urte berean erein eta jasotzen den produktuaz ari gara, nahiz eta urtea baino iraupen laburragoa izan prozesu osoak.

Urteroko laboreak C eta D eremuetako terrazetan lantzen dituzte, eta kasuren batean baita B eremuko terrazadun eremuan. B eremuan terrazak jartzen orain ari dira, hain zuzen ere herria handitzen ari delako eta herritar guztiei jaten behar dituztelako.

emateko, landatutako sail gehiago

Landatze sinplea eta landatze bikoitza: Matxulu dagoen lekuan egonda, landatze bikoitza egiteko aukera daukate, hau da, behar beste ur eta lurak behar beste elikagai izanez gero, landaketa-aldi berean (martxotik urrira) bi uzta jasotzeko modua izaten dute. Orokorrean, landatze bikoitzaz baliatuz gero, normalean honela egiten da: lehenengo garagarra ereiten dute, eta gero gari sarrazenoa (alforfoia deiturikoa), artoa, artatxikia edo barazkiak (uztailean sartu edo ereinda).

Lurra landu eta ereiteko teknikak sinpleak dira; gehienetan eskuz lantzen da lurra, eta batez ere emakumeak aritzen dira, nahiz eta lanik astunenetan gizonezkoak ere ikusten diren.

Lurra eskuz gertatzen dute, kirten luzeko pala estu batzuekin, eta baita idiak eta betiko goldea ere erabilia (egurrezko goldea eta ahoa metalezkoa duena). Goldez edo eskuz, gehienez ere 15-20 zentimetrora arteko sakonerarainoko lurrari buelta ematen diote. Lur mota oso gogorra ere ez denez, areaduna ere bai batzuetan, lan hori ez da hain nekeza hezetasun pixka bat baldin badago behintzat. Lurra irailean iraultzen dute, gari-uzta jaso eta gero, edo baita udako gainontzeko uzta jaso eta gero ere, urrian. Dena den, batzuetan udaberri hasieran ere egiten dute, martxo edo apirilean uzta erein aurretik.

Erein beharrekoa eskuz ereiten dute, dela hazia zabaltzea, dela dena delako alea lurpean sartzea, eta animalia pasatu ahala lurperatzen dute patata edo bestelakoak. Hori guztia aurreko taulan zehaztutako epeetan egiten dute. Esate baterako, garia ereiteko neurriak hauek dira, gutxi gorabehera: 10 kilo hazi kannal bakoitzeko (hau da, 200 kg hektareako). Saling herrixkan badira ereiteko makinak, 4tik 6 lerroa artekoak, 1,5 metrokoak eta traktoreek mugiaraziak. Kontuan izan behar da herri horretako lur-sailak handiagoak direla, eta erosoagoak makinak erabiltzeko.

Lurra ongarrizeko, aukera bat baino gehiago dute: simaur nahikoa errea erabiltzen dute, batetik, baina baita Urea eta ongari industrialak ere. Simaurra erein aurretik zabaltzen dute, eta ongari mineralak (erabiltzen direnetan), erein eta gero zabaltzen dituzte.

Landareek badituzte gaixotasun eta plagak (espezie polifago asko dago), eta horiei aurre egiteko ez dute produktu kimikorik erabiltzen.

Belar txarrak eskuz kentzen dituzte beti, erein eta gero hainbat aldiz, eta emakumeak eta haurrak ibiltzen

dira

horretan.

Uzta biltzea: Zekaleak dira uzta nagusia, eta kasu horretan hauek dira ematen dituzten pausoak. Lehenbizi, helduta dauden landareak eskuz biltzen dituzte eta sortak egiten. Gero, aukera baldin badaukate, triladora alokatzen dute, bailara osoan sei baitaude. Triladora horiek traktore txiki batzuen laguntzaz egiten dute lan (30-40 CV-koak dira). Aukera hori ez badute, edo pista bertaraino iristen ez den sailetan, sistema tradizionalaren bidez bereizten dute lastoa eta alea, hau da, idiekin zapaltzen dute uzta, ez baitute narrarik edo idaurrik. Hori egin ostean, eta narrarekin zapalduz txikitu badute uzta, airatu egiten dute dena, lastoa eta alea bereizteko.

Alea bereiztu ostean (modu batean zein bestean egin), etxera eramaten dute sakuetan sartuta. Etxean hobeto kenduko diote lasto guztia, teilatuetan utzirik eta haizeak lagundurik. Azkenek, etxeetako gela lehorretan gordeko dute alea.

Gariaren kasuan, batez besteko produkzioa 80-100 kg da kannal-eko, hau da, 1.600-2.000 kilo hektareako. Oso uzta eskasa da hori, baina inguru hartako neurrien barruan dago, eta lurra eman dezakeena da. Ez genuen izan gainontzeko produktuek zenbat ematen duten jakiterik, bertakoek ere ez zekitelako.

Beste datu jakingarri bat: uzta eskuz biltzeko emakume bakoitzak 6 ordu inguru behar ditu kannal bakoitzeko.

(Carlos Cantero doktorearen txostenetik egokiturik; 2004.)